

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

127/2020 Foru Agindua, 2020ko abuztuaren 7koa, zeinak mugatzen baititu adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza zentroetako irteerak, bai eta bisitak mugatzen eta arautzen ere, eta zeinak agintzen baitu titulartasun publikoko eguneko zentroak irekitzeko, Bizia eguneko zentroko asteburuko zerbitzuak izan ezik, 2020ko abuztuaren 10etik aurrera

2020ko uztailaren 21ean, 107/2020 Foru Agindua eman zen, zeinak hainbat neurri ezarri baitzituen Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari atxikitako adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako titulartasun publikoko egoitza zentroeiei eta titulartasun publikoko eguneko zentroeiei buruz.

2020ko uztailaren 30ean, 123/2020 Foru Agindua eman zen, zeinak 107/2020 Foru Aginduko zenbait neurri iraurarazi baitzituen eta agindu berriak eman.

Neurri horiek egoera epidemiologikoaren bilakaeraren eta osasun agintarien gomendioen mende zeuden, eta Gizarte Politiken Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez zabaldu edo aldatu zitezkeen.

COVID pandemiaren bilakaerari dagokionez eta zuhurtzia printzipioaren arabera zerbitzu horien erabiltzaileen eta langileen osasuna eta segurtasuna babesteko, bilakaera epidemiologikoa kontuan hartuta, beharrezkoa da beste foru agindu bat ematea, 2020ko uztailaren 30eko 1123/2020 Foru Aginduan jasotako alderdiak berriro arautzeko. Agindu horren indarraldia abuztuaren 9an amaituko da.

Sail honek eskumena du zentroek behar bezala funtzionatzeko behar diren jarraibideak emateko eta erabiltzaileen eta langileen osasuna bermatzeko, honako hauen arabera: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza zentroeiei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. artikulua.

Horregatik guztiagatik, eta indarreko araudiak emandako eskumenetan oinarrituta:

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Irteerak mugatzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari atxikitako adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako titulartasun publikoko egoitza zentroetako erabiltzaileei, bai eta Arabako Foru Aldundiak titulartasun pribatuko hainbat zentrotan itundutako plazetan dauden erabiltzaile guztiei ere.

Hala ere, erabiltzaileek gehienez 2 orduko irteerak egin ahal izango dituzte, bisitariekin batera, egoitzetako lorategietara. Zentroak lorategirik ez badu, egoitza gunetik kanpo irten ahal izango dira, langileek lagunduta, paseotxo bat egiteko. Erabiltzaileak ezin dira familiarekin bazkaltzera irten.

Bestalde, salbuespen gisa, gutxienez astebeteko eta gehienez 45 eguneko irteerak baimendu ahal izango dira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzak baimena eman ondoren, eta familia edo pertsona arduradunak dagokion erantzukizun agiria sinatuta.

BIGARRENA. Bisitak mugatzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari atxikitako adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako titulartasun publikoko egoitza zentroetako erabiltzaileei, bai eta Arabako Foru Aldundiak titulartasun pribatuko hainbat zentrotan itundutako plazetan dauden erabiltzaile guztiei ere. Bisitak, gehienez, 2 ordukoak izan ahalko dira; aste osoan zehar pertsona bera joango da bisitan, eta astebete pasata, beste pertsona bat joan ahal izango da bere ordeaz, baina, ahal dela, bisitariak beti pertsona berberak izan beharko dira.

HIRUGARRENA. Asistentzia taldeak baimentzen badu, COVID-19 kasu positiboa delako isolamenduan dagoen pertsona bat bisitatzea baimentzen da, logelan edo moduluan horretarako prestatutako gune batean. Sartzeko eta irteteko segurtasun zirkuitu bat ezarri beharko da, beste erabiltzaile/senide batzuekin gurutzatzea saihesteko, eta, ahal den neurrian, profesional batek lagunduta egin beharko da ibilbidea. Maskara, pantaila, eskularruak eta mantala emango zaizkio bisitariari. Bisitan doana pertsona bera izan beharko da beti; bisitak 30 minutu iraungo du, eta bisitariak eta erabiltzaileak ezingo dute elkar ukitu.

Erabiltzailea kasu susmagarria delako isolatuta egonez gero, ezingo du bisitarik izan PCRaren emaitza lortu arte, salbu eta medikuak baimena ematen badu edo erabiltzailea bizitzaren amaieran badago; kasu horietan, aurreko kasuan adierazitako babes ekipamendu bera emango zaio bisitariari. Ahal dela, bisitan doana pertsona bera izango da beti; bisitak 60 minutu iraungo du, eta bisitariak eta erabiltzaileak ezingo dute elkar ukitu.

Bisiten maiztasuna zentroaren egoeraren eta erabiltzailearen egoeraren arabera ezarriko da. Erabiltzaileak maskara kirurgikoa izan beharko du une oro soinean.

Modulutik irtetea, bisitariak babes ekipoa kenduko du, eta, profesional batek lagunduta, horretarako prestatutako ontzi batean sartuko du; ondoren, eskuak garbituko ditu ura eta xaboia edo gel hidroalkoholikoa erabiliz.

Bisitaren ostean, bai erabiltzaileak bai bisitariak erabilitako altzariak desinfektatu beharko dira, eta gune osoa desinfektatu beharko da bisita guztiak amaitutakoan.

Beharrezkoa izanez gero, neurri murriztaileagoak hartu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin koordinatuta.

Laugarrena. Bizitzaren amaieran, baimendutako dago bakarkako geletan mugarik gabeko bisitaldiak egitea. Pertsona COVID-19 positiboa denean izan ezik, bisitariak maskara erabili beharko du eta bisitaren aurretik eta ondoren eskuak garbitu, ura eta xaboia edo gel hidroalkoholikoa erabiliz.

Bosgarrena. Irekitzea titulartasun publikoko eguneko zentroak, Bizia eguneko zentroko asteburuetakoz zerbitzua izan ezik. Kasu positiborik balitz, positibo hori izan den eguneko zentroa ixteko aginduko da.

Seigarrena. Arabako Lurralde Historikoko udalei eta titulartasun pribatuko zentroeiei gomenatzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Foru Sailak xedapen honetan onetsitakoen antzeko neurriak har ditzatela.

Zazpigarrena. Foru agindu honek abuztuaren 10etik aurrera izango ditu ondorioak, eta indarrean izango da COVID-19aren pandemiaren ondorioz neurri berriak hartzea beharrezkoa ez den bitartean, ALHAOn noiz argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 10a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ